

B

BARREN

**Alberto Agirreazaldegi:
Laponia zeharkatu du zazpi egunetan**

**“Esperientzia
gogorra eta
ahaztezina
izan da”**



Elgoibar

Residencial Géminis

Hobeto bizi!



Etxebizitza
berri eta eksklusiboak
garaje eta trastelekuekin
266.000 eurotik.



2008an emango dira!



Informazioa eta salmenta:
Trenbide Kalea 21, bajo • 20870 Elgoibar

943 74 80 92
www.grupogsi.com



Gsi

(Ongizate eremuak)

Nikotina kaña bat, mesedez

lazko udan, pare bat lagunekin Irlandan egon nintzen. Hiri eta biztanle zoragarriak hangoak! Han oso ohikoa da taberna batean sartu eta, Guinness pinta eskuan duzula, pare bat ordutan lagunentzako solasaldi atsegin batean murgiltzea, mundua konpondu ahal izango bazenu bezala. Hori ikustean, inbidia pittin bat sentitu nuen, horrelako planak izugarri gustatzen baitzaizkit. Baina gure herrian hori egitea ez da hain atsegina. Taberna batean sartzean, erretzaileek sortutako behe-lainoarekin topo egitea da normalena. Batzuetan arnasa hartzea ere kostatu egiten da.

Hemen, 2006ko urtarrilaren 1ean jarri omen zen mar-txan tabakoaren kontrako lege famatu hura, non toki askotan erretzea debekatu edo erre ahal izateko lokala egokitu beharko zen. Aurrerapauso bat izan zen, baina tabernei dagokienez... bi urte pasa dira eta nik behintzat ez dut aldaketa handirik sumatu. Nire iritziz ez zuten lege hori behar bezala egin. Zergatik ez zuten guztiz debekatu lokal itxietan erretzea? Horrela taberna eta lokal guztiak egotera berean egongo lirateke bezeroei dagokienez, eta ez lukete inongo obrarik egin beharko. Burura datorkidan lehenengo erantzuna hauxe da: lege hura boto batzuk irabazteko sortua izan zela eta ausardia gutxiarekin ezarri zutela. Irlandan 2004. urtean ezarri zuten legea (lehenengoa

munduan) eta ez dirudi inongo arazorik egon denik.

Pneumologoaren arabera, Estatu espainiarrean egunero erretzaile pasibo bat hiltzen da gutxienez. Erretzailea ez denak arnasten duen keak, erretzaileak berak arnasten duenak baino elementu toxiko gehiago ditu eta erretzaile pasibo batek %20-30eko probabilitate handiagoa du biriketako minbizia jasateko. Ez da bidezkoa! Espero dut egunen baten gauzak aldatzea.

Listo! Hori da esateko nuen guztia. Ikusi nituen irlandar haien modura, mundua konpontzen saiatu naiz eta lasaia geratu naiz orain. Nire San Miguel hau bukatu eta banao etxera.

Asier Arizaga



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Irlandan 2004an debekatu zuten tabernetan erretzea eta ez dirudi arazorik egon denik"



ALBERTO AGIRREAZALDEGIK
Laponia zeharkatu du zazpi egunetan

"Kilometro asko egin ditut bakarrik, baina horrek ez nau beldurtu"

www.elgoiBARREN.net


Egin klik eta ikusiko duzu



ALBERTO AGIRREAZALDEGI

LAPONIA ESKIZ ZEHARKATU DU

“Jendea hotza
iruditu zait,
eguraldiaren
antzekoa”



Rajalta Rajalle Hiito Errusiako mugan hasi eta Suediakoan bukatzen den iraupen eskiko proba ez lehiakorra da. Iaz beste euskaldun batzuk joan ziren, tartean Josu Elejalde eibartarra. Harengana joan zen iritzi eske eta hark animatu zuen Alberto. Izan ere zazpi egunetan 440 kilometroko ibilbidea egiteko aukera sortu zitzaionean, ez zuen zalantzarik izan. Bere bizipenak www.blogak.com/ibiltarixanak/ helbidean bildu ditu. Aurrerantzean ere bere ibilaldiak kontatzen jarraitzea espero du, baina derrigortasunik gabe. Esperientzia gogorra eta ahaztezina izan da.

Noiz hasi zinen iraupen-eskia praktikatzen?

Duela 12-13 urte inguru hasi nintzen iraupen eskia egiten, baina ez diot denbora handirik eskaini. Orain dela hamar urte Austria eta Italiara joan nintzen Dolomitenlauf eta Marcialonga probak egitera eta orduan sortu zitzaidan zaletasuna. Oraindik ere mendiko eskia egiten dut. Hau gogoko-ago dut, libreagoa delako.

Zergatik joan zara hain urrun?

Ez daukat arrazoi berezirik. Beti izan dut gogoan Laponia edo Groenlandiara joateko eta pentsatu gabe, aukera hori sortu zitzaidanean, ez nion utzi ihes egiten.

Joan aurretik bidaia prestatzearekin gozatzuz duzun horietakoa zara?

Pixka bat bai, baina ez gehiegi. Bidaietan inprobisatzea gustatzen zait, baina oraingo honetan ez zegoen inprobisaziorako aukerarik. Eski-proba batera joan naiz. Ia-ia arrastotik atera gabe ibili naiz.

Proba lagatzekotan egon zinen?

Ez, ez nuen lagatzeko asmorik, baina lehenengo etapa gogorra egin zitzaidan eta beldur izan nintzen. Hala ere, bigarren egunean beste modu batean ikusten hasi nintzen, eta hurrengo egunetan askoz hobeto ibili nintzen. Burugogorra naizenez, egingo nuela uste nuen, baina heldu arte ezin da jakin, edozer gauza gerta daiteke-eta. Finlandiar batek, adibidez, azken egunean erori eta mokorra hautsi zuen, eta proba bukatu gabe gelditu zen.

“Bakardadeak beldurtzen bazaitu, akabo. Hobeto ez joatea eta etxean gelditzea”

Finlandiako garagardoa ona da?

Bai, ez naiz oso garagardo zalea baina han oso ondo sartzen zen. Azken egunean garagardo fabrika batera eraman gintuzten eta nahi haina garagardo edateko aukera izan genuen.

Finlandia eta Laponiako gizartea ezagutzeko aukerarik izan duzu?

Ez. Bakarrik probaren antolatzaileekin eta

anua-postuetan zeudenekin izan dugu harremana. Ezagutu dudanagatik jendea hotza iruditu zait, eguraldiaren antzekoa.

Burua galtzeko moduko paisajea da hura?

Bai, hemendik politagoa ematen du baina han elurra, hotza eta basoa besterik ez dago neguan. Bertan bizitzeko gogorra ematen du.

Argi faltarik izan zenuten?

Argi faltarik ez, baina seiak alderako iluntzen zuen eta etaparik luzeena (90 kilometro) ilunetan bukatu nuen.

Lakuak edo aintzirak ederrak omen dira.

Gomendatzeko moduko lekua da?

Lakuak elurrez estalita zeuden eta gu gainetik ibiltzen ginen ibilbidea jarraituz. Neguan ez da ikusten lakurik; udan berdeagoa eta politagoa izango da, noski.

Saunaren kulturarekin gozatu duzu?

Bai, han toki guztietan aurkitu dugu sauna eta ia egunero gozatu dugu. Egun batean saunatik atera eta ondoko laku izoztuan sartu ginen prestatuta zegoen zulo batean murgilduz, baina ez genuen segundu askorik irauan bertan. Euren ohituretan barnertuta daukate sauna.

Iraupen eskian, bakardadeari aurre egiteko gai izan behar da bereziki?

Ez derrigorrez, baina Rajalta Rajalle proban normala da egunero kilometro asko bakarrik egitea eta nik behintzat kilometro asko egin ditut bakar samarrik, baina horrek ez nau kikildu. Ez da preparazio berezirik behar baina bakardadeak beldurtzen bazaitu, akabo. Hobeto ez joatea eta etxean gelditzea.

Zer esango zenieke zure adinean motibazio rik gabe daudenei?

Kirola egitea ez da adin kontua, eta 60 urte edo gehiagorekin ere egin daiteke, noski. Hemen adin horretako jende asko ibiltzen da mendian, eta sana da. Maila ez lehiakorrean kirola egitea guztiz gomendagarria da. Iraupen eskia adinekoentzat oso eroso da eta Finlandian jende asko ibiltzen da. Rajalta proban ondoen zebiltzanak 70 urteko bi finlandiar ziren. Haien bizi guztian ibili dira eta ohituta daude.

Zure erronken arabera eskatzen dituzu oporrak?

Ez, lehen aldia da oporralditik kanpo hartzen ditudala, baina gero eta jende gehiagok egiten ditu halakoak. Pentsa, hama-zazpi euskaldun joan gara eta lan-mota

desberdinetako jendea ginen, baina bakotza ahal den moduan moldatu da. Gauza hauek ezin dira utzi geroko, bestela inoiz ez ginateke helduko.

“Bizikletaz egindako bidaia gustatzen zaizkit, bakarrik nahiz lagunekin”

Beroa gustuko duzu ala hotza nahiago?

Ni hotzarekin hobeto moldatzen naiz, baina norbere gustuko kontuetan ez du garrantzirik beroak edo hotzak.

Zein hizkuntza hitz egiten dituzu?

Ingeles apur batekin moldatu naiz, baina gehiago egingo banu, hobeto munduan zehar ibiltzeko. Hortik aparte italieraz egiten dut, baina Italiatik kanpo jai dago. Han italiarrekin hitz egiteko balio izan dit.

Zein da zure hurrengo erronka?

Ez dakit, orain ez da une egokiena erabartzeko baina mendiko eskiz zeharkaldi bat egitea gustatuko litzaidake beste urteren batean.

Laponiatik heldu eta zer izan zen egin zenuen lehenengo gauza?

Aste Santuan iritsi nintzen lasai hartu nituen egun batzuk. Emaztearekin egin nituen planak baina eguraldiak ere ez zuenez lagundu, lasai samar ibili ginen. Ez naiz oporrik gabe geratu. Astebeteko oporrak hartu ditut horretarako eta oraindik gelditzen zaizkit egun dezente hartzeko. Nolanahi ere, niretzako oporrak izan dira.

Zein izan da inoiz egin duzun bidaiarik bitxiena?

Edozein bidaia izan daiteke bitxia, kontua da nola egiten den. Niri bizikletaz egindako bidaia gustatzen zaizkit, bakarrik nahiz lagunekin, ibilbide jendetsurik gabe eta presarik gabe egiten diren horiek. Pirinioa zeharkatu nuen mendiz eta aurtan ere egiteko asmoa daukat.

Iragana etorkizunari begira



Ekonomia

Biztanleria aktiboaren banaketa orain dela ehun urte

Hemeretzigarren mendearen azken laurdenetik hogeigarren mendeko lehenengo hamarkadara arte, Elgoibarko ekonomian nekazaritzak pisu handia izaten jarraitzen zuen, nahiz eta industrializazioa gure herrian abian zen. Izan ere, 1877ko ekainaren 29an, San Pedro burdina fabrika martxan jarri zen, eta lau urte geroago biztanleriaren erdiak baino gehiago (%60 inguruk) baserritik bizitzen jarraitzen zuen, 1881ean hain zuzen.

Lurraldearen espezializazioa zegoen. Kaskoan eta Altzolan kontzentratzen ziren 2. eta 3. sektoreetako lanbideak, baina oraindik bi nekazari eta bi errotari zeuden kaletarren artean eta hiru nekazari eta bi zerbitzu-lanetan altzolarren artean. Nekazariak, nagusiki, landa auzoetan eta Mendaron zeuden. Nekazal auzoetan beste hamar 2. sektorean aritzen ziren eta Mendaron hamarren bat bi jardueretan. Zedulak hartzera derrigortuak ez ziren egongo baserrietako morroiak eta neskameak, haien baserrietan ohikoak ziren bitartean (1802ko zentsuan 90 ziren), azken hauek ohikoak izan ziren industriaren eta jabeen etxeetan, eta Altzolako ostatuan.

Gehienak, nekazariak

Halaber, 1890eko hauteskunde-errola ere aztertuz gero, bederlatzi urte geroago antzeko datuak agertzen dira. 25 urte baino gehiagoko 720 gizonak, gutxi gorabehera, zuen boto eskubidea. Eta horietatik 482k lehen sektorean jarduten zuen (%67k), 187k bigarreanean (%26k) eta 51 hirugarrenean (%7k).

Hala ere, ezbairik gabe, XIX. mendeko bukaeratik aurrera enplegu industrialak hazten joan zen Elgoibarren oro har, eta horren zergatia, neurri handi batean, San Pedro fabrikaren egon liteke, 1897an ehun langile eta mendearen bukaeran 200 langile baitzituen, C. Urgdangarinnek San Pedro fabrikaz argitaratutako liburuan Nikolas Bustinduykoaren txostena jasoz adierazten duen legez. Badugu 1907ko Elgoibarko hautesleen lanbide-

en berri ere, eta datu horiek enplegu banaketaren hurbilpen bat egiteko aukera ematen digute. Hautesle izateko une hartan 25 urtetik gorako gizona behar zen.

Beraz, 25 urtetik gorako gizonak bakarrik kontuan izanda, lanbideen banaketaren batez bestekoa honakoa zen orain dela mende bat: lehenengo sektorean %60, bigarreanean %28 eta hirugarrenean %12.

XIX. mendeko bukaeratik aurrera enplegu industrialak hazten joan zen Elgoibarren

Non	1. sektorea	2. sektorea	3. sektorea	Besteak
Kaskoa	2 nekazari, 2 errotari	100 jornalari, 27 industriari	24 jabe, 5 enplegatu, 2 obra-maisu, 3 botikari, mediku 1, zirujau 1, arotz 1, zaldizain 1, 2 lur-neurtzaile, danborilero 1, tabako-dendari 1, notario 1, 5 apaiz, apaiz fraile bat klausuratik irtenda, organista 1	Atzerritar bat
Idotorbe-San Pedro	42 nekazari	4 jornalari		
Aiastia-San Migel	56 nekazari	Jornalari 1		
Ermuaran-Sallobente	72 nekazari	3 jornalari		
Azkue-San Roke	28 nekazari	Jornalari 1; industriari		
Arriaga	22 nekazari			
Altzola	3 nekazari	15 jornalari, 2 industriari	Ostatu jabe 1, tabako dendari 1	
Mendaro	58 nekazari	3 jornalari, industriari 1, industria-enplegatu 1	4 enplegatu	
GUZTIRA	283 nekazari. Honako errotak: Irunaga, Osoro, Ibarre, Unastegi, Gelasoro, Garagartza, Lasalde eta Plaza	127 jornalari 31 industriari Industria enplegatu 1		

Pello Arrietaren "Elgoibar modernitatearen atarian" liburutik hartua.

Elgoibartarren erdiak industria sektorean dihardu

Ehun urtetan enplegu alorrean sekularako aldaketa izan da Elgoibarren, Gipuzkoan gertatu izan den bezala. Izan ere, orain dela ehun urte langile gehienak nekazariak baziren, gaur egun banaka batzuk baino ez dira baserritik bizi. Industriak hartu du indar handia. Lehengo datuetan, ordea, ez zen emakume langilerik agertzen.

Eustat estatistika erakundeak emandako datuen arabera, 2001. urtean 4.406 elgoibartarrek lan egiten zuten eta beste 259 langabezian zeuden.

Sektoreka ikusi daiteke ehun urtetan gertatutako aldaketa: nekazaritzan gaur egun lanean dihardutenen %1 inguru baino ez da aritzen. Eskualdean gertatutako industrializazioak eragin handia izan du, eta langileen %51k bigarren sektorean dihardute. Horrez gain, oraingo gizartean zerbitzuek garrantzi handia hartu


dute, eta %42 inguruk dihardute bertan. Eraikuntza sektorean, azkenik, %6 inguruk dihardute.

Aldaketa nabarmenak

Datuok gizartea zenbat aldatu den agerian lagatzen dute, baina behar bada ez dute erakusten azken urteotan papeirik gabe lanean dabiltzan hainbat inmigranteren egoera.

Era guztietara, langile askoren egoera berria azaltzen dute estatistikak: langileen mugikortasuna. Lehenago langile gehienek herrian bertan lan egiten zuten. 2001eko datuen arabera, 2.744 elgoibartarrek (%62k) baino ez du Elgoibarren bertan lana egiten. EAeko beste herriren batean lanean dabiltzanak 1.452 dira (%32). Horiez gain, badira EAetik kanpo lanean dabiltzan elgoibartarrak, baita beste estatu batzuetan ere.

Lanean diharduten elgoibartarrak, sektoreka (Eustat,2001)



“Bai Industriari!”

Debarreneko industria-sarea bultzatzeko ekimena sortu du Debegesak

Debegesak, eskualdeko beste hainbat agenterekin elkarlanean, “Bai Industriari!” izeneko ekimena jarri du martxan, Debarreneko industria-sarea bultzatzeko asmoz.

Aste Santu aurretik aurkeztutako ekimen horren bidez, enpresek lanpostuak betetzeko zailtasunak arindu nahi dituzte.

Ekimenaren bultzatzaileek adierazitakoaren arabera, “gure erronka nagusietakoa da gure gazteei industria-enpresak gertuko sentiaraztea eta, hartara, egun enpresek hainbat lanpostu betetzeko duten zailtasuna samurtzea”.

Langile premia

Eskualdeko biztanleria okupatuaren erdiak baino gehiagok arlo horretan dihardu industrian. Gainera, gure industriaren bereizgarri dira dinamismoa eta ekintzaile izaera. Hasierako armagintza industria haietatik gaur egunera arteko eboluzioa ikustea besterik ez dago, hori egiaztatzeko.

“Industria-sarearen egokitze eta eboluziorako nahiz lehiakortasun gaitasunerako ezinbestekoa izan da gure langileen etengabeko trebakuntza”, adierazi dute bultzatzaileek. Era berean, azken urteotan enpresek zailtasunak izan dituzte hainbat lanpostu betetzeko. “Debarreneko ikastetxeetatik industrieratutako ikasleak ez dira gure inguruan behar diren lanpostuak betetzeko nahikoak”, Debegesako arduradunen esanetan.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Baina nola halako gauza ikaragarria Elgoibarko sarreran?

Hori da gehien entzuten den komentarioa, elgoibartarren artean, Santa Ana paretik pasatzen garenean, eta hango etxe erraldoi eta beldurgarri hori begi bistan azaltzen denean. Amorrazio eta pena handiarekin esaten da gainera.

Eta bigarren gauza beti entzuten dena, nola ez: "Baina nora begira egon dira gure agintariak? Nola onartu daiteke halako astakeria?".

Zer pena ematen duen pentsatzeak hori betirako horrela geldituko dela, King-Kong bezalaxe, elgoibartarren lortsarako. Izan ere, zoritxarrez, gu denok, orain garenok, Udaleko agintariak eta baita proiektu horiek sinatu dituen teknikaria ez gara hemen betirako geldituko, baina eurok egindako izen gabeko obra beldurgarri horiek bai. Gure ondorengozat herentzia polita benetan!

Ikastolako etxeak alde batetik (alambre arantzaduna eta talaian zelatari bat bakarrik falta da). Parean, Madalako Toletxen, beste dorre bat nahi dute sartu, kaltzadoreakin hori ere? Nola amaituko da Madalako proiektu itxaropentsua zena, hain peatonala eta gozagarria izango zela agindu ondoren? Baina promotoreak dira lehenengo, ez da hori egia?.

Eta zergatik guk, herritarrok, salatu behar izan dugu halako urbanizazio penagarria? Gure botoekin dauden agintariari eskatzen diegu kontrol askoz handiagoa Hirigintza Sailean hemendik aurrera, orain artekoa ikusi ondoren, beldurrez

gaude-eta. Zer izango da hurrengoa? Zer tristura...

C.I.G

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:


1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia demigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferenziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Ibai
Portu

Udaberri berri bat badator. Bizimoduak hemen behean, herrian, aurrera

darraien bitartean, Debabarreneko mendi eta txokoetan milaka izaki jaioko dira, milaka bikote erlazio berri gertatuko dira eta hamaika burrukaldi izango dira lurralderik oparoenaren bila. Gehienetan bezala, hori guztia gu konturatu gabe gertatuko da.

“Udaberriak bizia dakar gurera. Zer ekarriko dizu zuri, Oihana?”

Gure mendietako basabizitza udaberriarekin esnatu egingo da: Afrikatik iritsi berria zaigun saizuri bikoteak Elgoibar, Mendaro eta Debako landa-zelaiak zeharkatuko ditu, hil berri diren animalien bila. Karakaten okil handiak gereziondo ustel bat kabia egiteko bortizki zulatuko du, bere mailukaden hotsa urrunera zabalduz. Ixilpean, baso-igelak Berasaluze eta Itsasuetako zuhaizpeetatik zelairatuko dira hango putzuxketan arrautzak jartzeko. Madarixako putzuan gure uhandrerik handiena bistatuko zaigu martxo bukaeran, uhandre marmolaria, bere arrautzak uretako landaredian ezkutatzeko. Egun hauetan, hegazti asko kabia bukatzen jo ta ke ari dira bizira ekarri behar dituzten izaki berriak jasotzeko. Apirilean hegoalde urrunetik Lasalderreko sagarrondoetara lepituzulia iritsiko da, sugea imitatzen dakien Europako hegazti bakarra. Aitzola-Berasetako enara bikoteak Saharako basamortua gurutzatu eta gero iazko leiho-zulo berbera topatuko du handik sartu eta kabia egiten hasteko. Apiril bukaeran, San Lorentzo bailarara udarako gauetan esnatzen diren izaki harrigarri bezain misteriotso batzuk kumatzerira iritsiko dira: ilunabarreko zatak. Udaberriak bizia dakar gurera. Udaberriak zer ekarriko dizu zuri, Oihana?



Oihana
Tarragual

Hegaztiak hara eta hona dabilzan bitartean, niri udaberriak Ibai, Cadizera ekarri nau. Hona udaberria iritsi da. Ez ordea Euskal Herrian eta beste txoko askotan. Udaberria zirudien negua agurtu dugu eta orain, negua dirudien udaberriari eman behar diogu ongi etorria. Ulertezina. Beno, aldaketa klimatikoa. Aste Santuko oporrak amaitzen ari zaizkit. Eta zuei, irakurleok, bukatu zaizkizue? Benidormeko diskotekaren batean Chiquilikuatrerren pausoak ikasten aritu al zarete? Edo 300 euroko polarra erosi eta gero 200 zaplasteko hartu al dituzu zure eskiatzeko lehen egunean? Akaso goizero hotelean jan dituzun zazpi napolitanek ez dute zure kolesterol maila igoko.

“Bidaiatzea zoragarria da, baina batez ere gorroto dut neurri gabeko turismoa”


Oporrak iritsi eta hegan egin nahi dugu. Edozein prezio eta baldintzatan. Baita bankuari kreditua eskatu behar badiogu ere. Edo *Aupa Etxebeste!* filmean bezala, pertsianak itxi, oporrak etxean pasa, baina bizilagunak ez daitezela enteratu mesedez! Ia igo dezatela eskua oporretan etxean geratu direnek! Bat... bi... bi! Zorionak! Nola lortu duzue? Kontutan izan ezazue, astelehenean lanera joango zarete-nean, Zapaterok Rajoyri begiratzen dion bezala begiratuko zaituztela. Animalia arraro baten pare. Eta oporretako argazkiak erakusten hasten direnean, zuk akaso, jurnatzekoak edo parranda hartakoak... atera beharko dituzu. Bidaiatzea zoragarria da. Baina gorroto dut derrigorrez kanpora atera beharreko nahi hori eta batez ere gorroto dut neurri gabeko turismoa. Saizuri bikoteak, okil handiak, lepituzuliak... Lasai lasai dabilzan bitartean hemen behean ez da giro.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Aste Santuko oporretan ez da hildakorik egon Hego Euskal Herriko errepideetan.

Puntu bidezko karnetak izan ote du eraginik?



Begoña De La Fuente

47 urte, administraria

Bai, jendea motelago joaten da, kontu handiagoarekin. Ni gidaria naiz eta saiatzen naiz astiroago joaten, niri punturik ez kentzeko. Isunek ere eragiten dute; ez da txantxa.



Begoña Moya

47 urte, etxekoandrea

Beharbada bai, telebistan hainbeste aldiz aipatzen dute eragina baduela, bereziki helduen artean. Gazte asko ziztu bizian joaten dira autoan. Ni kontu handia izaten saiatzen naiz.



Aitor Eizagirre

42 urte, langilea

Nik uste dut baietz. Gidarien jarrera aldatu egin da. Jendeak lehen baino gehiago errespetatzen ditu seinaleak eta kontzientziatu egin da. Datuek hori agertzen dute behintzat.



Mª Angeles Senperena

47 urte, etxekoandrea

Ez gehiegiz; nik uste dut puntuen kontua baino gehiago dela telebistan ematen den informazioa. Jendeak badaki arriskua dagoela errepideetan, eta tentuz ibiltzen da.

10^{eko}
TXIKIAN



**ASIER
ARREGI**

Ikaslea eta langilea

1. Zer falta zaio herriari? Eta zer dago soberan?

Berde-gune gehiago falta zaio herriari. Soberan daude azken aldiaren baitan eta bestean ez aparkatzeko esaten duten pibote horiek.

2. Azken aldian Elgoibarren egin dituzten obretatik, zein gustatu zaizu gehien?

Madala aldea.

3. Ausartzen zara kultur eskaintzari tentsioa hartzen?

Bai, kultur eskaintza nahikoa dago eta ni, ahal dudan guztietan, joaten naiz bertso jaialdietara eta antzezlanetara.

4. Egia da jendea oso gutxi mugitzen dela?

Ez, azken aldiaren lehen baino ekintza gehiagotan parte hartzen dugu gazteok, adibidez, Gaztetxean egin zen Gazteen Egunean.

5. Aukera nahikoa badago Elgoibarren kirola egiteko?

Aukera badago, baina ez da nahikoa. Kiroldegian itxaron-zerrenda dago eta txiki geratu da.

6. Aukeratu egun bat, lagun bat gure herrira gonbidatzeko...

Txiki Eguna.

7. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?

Hori nahi nuke. 21 urte ditut, eta betidanik ikusi izan dut oraingo egoera berean. Azken aldiaren zertxobait hobetu da eta sasoi batean agertu ziren arrain batzuk.

8. Ondo komunikatuta dago gure herria? Erabiltzen duzu garraio publikoa?

Bai, ondo komunikatuta dago. Orain autoa daukat, baina lehen erabiltzen nuen garraio publikoa.

9. Ahal izango bazenu joango zinateke beste herriren batera bizitzera?

Ez, aukeran hemen geratuko nintzateke. Nire tamainako herria da: giroa dago, lagunak, dendak... Batzutan erropera erostera Donostiara joaten naiz, merkeagoa delako han, ez hemen ez dagoelako.

10. Ipini nota gure herriari, Otik 10era bitartean...

8 bat.

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutzarekin ordaintzeko erraztasunak

ATE IREKIAK!

APIRILAK 5 10:00-13:00 larunbata ARETO NAGUSIAN

OÑATIKO CAMPUSA:

Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

APIRILAK 3 18:00 asteazkena ARETO NAGUSIAN

BIDASOAKO CAMPUSA:

Tel.: 943 63 91 29 // aallur@bidasoa.eteo.mondragon.edu

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

Ondoko titulazio hauek eskaintzen ditugu:

- > Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Gradua
- > Zuzendari Idazkaritza

WWW.ETEO.MONDRAGON.EDU



ENPRESA
ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD DE
CIENCIAS
EMPRESARIALES

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

PREST



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjodoso.euskalnet.net

Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Javi

Erretxindl, 1 behea
☎ 659 772 932

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilola
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrotza

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santa Ana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Aramar

Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Pelo

Herriko Enparantza, 5 behea
MENDARO
☎ 943 03 35 35/660 791 723

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Indusketa lanak

Lekunberri Indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.es
www.excavacioneslekunberri.com



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Koleorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 22 58



Igeltseritza

Antonio Markez

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Lorzaintza

Pagoa Ioradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia
☎ 943 74 30 94



Merkatu Plazako saltzaileek BARREneko ate aurrean aparkatzen dute: “Ostegun goizean ezin izan ginen lanera sartu eta ez da hori gertatu zaigun lehenengo aldia izan. BARREneko erredakzio aurrean hiru furgoneta zeuden aparkatuta eta ez ziguten pasatzeko lekurik lagatzen. Badakigu lanera etortzen direla, baina gu ere bai. Gainera, BARREnera jende asko etortzen da eta pasatzeko lekua ezinbestekoa da. Udaltzaingora deitu behar izan genuen eta berehala etorri ziren bi udaltzain laguntzera. Esan digutenez, Merkatu Plazako aldapa ez da euren zona, eta ez omen dira hor sartzen, saltzaileekin arazo dezente izan zituztelako garai batean. Hala ere, laguntzeko prest azaldu dira”.




Euria egiten duenean ez daukagu umeekin egoteko lekurik: “Elgoibarren umeekin ibiltzeko leku estaliak falta dira. Euria egiten duenean ezin gara etxetik irten. Aukera bakarra Nettoko merkatalgunean dagoen jolas parkera joatea da, baina jai egunetan itxita egoten da. Aste Santu honetan, esate baterako, jai egun asko izan ditugu, eta eguraldiak ez du batere lagundu. Udalari eskatuko nioke herriko parkeren bat estaltzea, bestela, gure aukera bakarra Plazako arkupeetan ibiltzea da, eta sekulako hotza egiten du”.



Udal Kirol Patronatua txalotu nahi dugu ordutegia zabaldu duelako: “Bazen ordua! Kostatu zaio Kirol Patronatuari herritarren beharrei erantzutea, baina azkenean egin du.

Mintxetako instalazioak goizez ere zabalduko dituzte hemendik aurrera eta domeka goizetan ere zabalik egongo dira. Eskertzekoa da Patronatuak egin duen ahalegina”.



ESKERTZA



2008ko martxoaren 20an hil zen *Ina Garagarza Ascorbe* jaunaren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA



2008ko martxoaren 15ean hil zen *Patxi Igartua Arizmendi* jaunaren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Elgoibarko Udalak 60.000 euro inbertituko ditu patinatzeko pista berria erosteko

Gabonetan Plaza Txikian jarri zutenaren antzekoa izango da, poliofelinaz egina

Gabonetan Plaza Txikian jarri zuten patinatzeko pistaren antzekoa erosi du Udalak. Iaz karpa erosi zuten Debemen eta Udalaren artean, baina pista Gabonetan izan zuen arrakasta ikusirik, eta orduan aurreratu zuten moduan, pista erostea erabaki dute Udaleko arduradunek. Hortaz, ez da datozen Gabonetara arte itxaron beharrik izango patinatzeko pistan ibiltzeko. Udal arduradunen esanetan, patinatzeko pista ez du kokaleku finkoa izango eta beharren arabera herriko leku batean edo beste batean jarriko dute. Hori bai, Kirol Patronatuaren arabera, garrantzitsua izango da zainduta dagoen lekuetan jartzea, ezbeharrak gertatu ez dadin. Hortaz, Kiroldedia edo Ikastolako frontoia leku egokiak izan daitezkeela adierazi digute. Kasu horietan ez luke karpa beharrik izango.

60.000 euro

Elgoibarko Udalak 60.000 euro inbertituko ditu patinatzeko pista erosteko. 200m²ko azalera izango du pista eta



poliofelina izeneko materialez egindakoa izango da. Material horrek ohiko izotz pisten aldean mantenurako erraztasunak eskaintzen ditu, eta pista bera montatzeko ere errazagoa da.

Erabilera anitza

Hasieran patinatzeko pista Gabonetan jartzeko helburua zeukaten Uda-

leko arduradunek, baina erostea erabaki duten momentutik, ahalik eta gehien aprobetxatzea da euren nahia. Pista berria luzaroagoan jarri daiteke herritarren zerbitzura eta hockey partidak edo antzerako ekimenak antolatzeke aukera aztertzen ari dira. Aisia eta kirola uztartzeko beste aukera bat izango da aurrerantzean Elgoibarren.

Altzolan eroritako etxetik alde egiteko eskatu die Udalak han bizi direnei



Altzolako Aurretxe etxearen zati bat erori ondoren, segituan lagatzeko eskatu die Elgoibarko alkateak etxea okupatu zuten etorkinei. Bertan bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak inondik inora ez direla betetzen eta erabakirik egokiena etxea hustea dela ondorioztatu zuten Udal teknikariek, etxearen egoera aztertzen jardun eta gero.

Zubibai Elkartekoek, bestalde, aste honetan bertan jarri dute salaketa Eibarko Epaitegian, zabor, zikinkeria eta etxearen egoera larriagatik. Euren esanetan, "Aste Santu ondoren arazoak konpontzeaz dagoelako mezua zabaldu da, baina Eibarko Epaitegian esan digutenez, arazoak luze joko du".

Txokoa **Ermuaranbide kalea**



Elgoibarko Udalak lehiaketa bidez aukeratuko du Ermuaranbide kalean espalo berria egingo duen enpresa. 261.000 euroko aurrekontua dauka proiektuak eta hiru hilabeteko epean amaituko dira lanak. Espalo berriak 230 metroko luzera izango du eta bi metroko zabalera. Bide guztian zehar argiztapen berria jarriko dute. Izan ere, kale horretan dauden lantegien ondorioz, trafiko handia ibiltzen da kale horretan eta oinezkoentzako oso arriskutsua da. Bizilagunek aspladi eskatu zuten espaloia.

Zenbakia **86**

San Bartolome Parrokiako arduradunek 2007ko zenbait datu ezagutzera eman dituzte. Batzuk aipatze aldera, esan dezakegu 86 hileta izan zirela 2007an. Bataioak 55 izan ziren eta ezkontzak, berriz, 13. Bestalde, 65 gaztetxok egin zuten lehenengo jaunartzea.

Irudia **Auto bat Deba ibaian**

Eguazten goizean auto bat atera zuten ertzainek Deba ibaitik, Andikano basterriaren aurrealdean. Audi A4 urdin bat zen eta uretatik atera zutenean ikusi zuten ez zegoela inor autoan. Ertzaintza autoaren jabearekin jarri zen harremanetan, Portugalen zegoena. Autoa Bilbon aparkatuta laga zuela adierazi zuen. Oraindik ez dakite nola iritsi zen autoa Olaso ingurura, eta Ertzaintza egoera ikeritzen ari da.



Parkinson hitzaldia

Deparkel eta Nagusilan Elkartek antolatuta, Parkinson gaixotasunari buruzko hitzaldia izango da bihar, Kultur Etxean eguerdiko 12:30ean. Javier Ruiz neurologoak emango du parkinson gaixotasunari buruzko informazioa eta bide batez, Deparkel (Debabarreneko Parkinson gaixoen elkarte) ezagutzeko aukera ere izango da.

Gaztetxean egin zioten ongietorria Fernando Berti

Ertzaintzak Auzitegi Nazionalaren aginduz galarazi egin zuen Fernando Bert preso elgoibartarrari Plaza Handian egin nahi zioten ongietorria eta, ondorioz, Gaztetxean izan zen ekitaldia martxoaren 15ean. Dantzariak eta bertsolariak izan ziren, Amnistiaren giltza jaso zuen Bertek eta gero bazkaria egin zuten.



Ordu aldaketa zapatuan

Eguraldiak kontrakoa adierazi digun arren, joan zen astean sartu ginen udaberrian eta bihar, ordu aldaketa egin beharko da. Goizaldeko 2:00etan 3:00ak izango dira.



ernesto ezpeleta

“Bihurri”

Aizkolari gutxiak lortu dute Bihurriren sona. Munduko bi errekor lortu baditu ere, ez du bere burua aizkolari ontzat. Jenio biziko kirolari guztiek bezalaxe, bere erakustaldiek ikus-min handia pizten dute. Urteen joan etorriekin, baretuago dago Mendaron bizi den kirolaria. Soldadutzan zegoela hasi zen aizkorarekin, eta harrezkeroztik Bihurri ezizenez da ezaguna Euskal Herrian eta hemendik kanpo.≠

Andoni Iturbe



Argazkia: Belen Garcia

“Niri *Zuzen* deitu beharko lidakete, nerbioak pixkat baretzen ikasi dudalako”

Arratsalde honetan (martxoaren 13) ere telebista saio bat grabatzera zoaz.

Bai, hori da. “Horrelakoa da bizitza” (ETB-1) saioan aterako naiz. Hor dabilta batetik eta bestetik deika.

Telebistan agertzea gustatzen zaizu?

Zer egingo dut, ba, deitzen badidate. Gero uste dut “Bi errepidean” saioan ere aterako naizela. Arazorik gabe. *Sin problemas.*

Zuk deitzen duzu telebista kateetara?

Ez, ez. Nola deituko diet nik?

“Tienes talento” saioan agertu zinelako galdezten dizut...

Kasu horretan eurak etorri ziren Mendarora. Kastingak egiten ari zirela esan zidaten eta

entrenamenduak grabatu behar zituztela. Handik hilabetera deitu zidaten kastinga pasatu nuela esateko. Baina gogorazi nien ez nuela kasting bakar batean ere parte hartu. Bakean lagatzeko eskatu nien. *Una encerrona.* Horixe bera.

Zerk dauka meritu gehien: errekor horiek egitea ala izandako ezbeharrak eta gero berriro aizkora eskuetan hartzea?

Biak daude lotuta. Bi aizkorakada gogor jaso ditut azken aldian, azkena hankan orain dela bi urte. Operazio larri bat izan nuen. Kristoren sarraskia egin nuen, eta bi hezur moztu nituen. Aizkora bete-betean joan zitzaidan hankara. Bestea ezkerreko eskuan izan zen,

bost tendoi moztu nituen. Behar bezala errekuperatzeko kemena behar da, marka bat egiteko erakutsi behar den kemena besteakoa. Norbere buruari gogor egin behar zaio.

Erabat osatu zinen?

Bai, hanka eta eskua ondo geratu zaizkit. Medikuek oso lan ona egin zuen, eta ni gustura nago.

“Niri geldi egoteko esatea, abade bati meza ez emateko esatea bezalakoxea da”.

Mezatarak joaten zara?

(*Barreak*) Horrekin ni geldi egotea zaila dela esan nahi nuen. Horrelakoxea naiz, medikuek geldi egoteko esan zidan, eta hori bete egin behar nuen.

Aizkolari ontzat daukazu zure burua?

Ez. Harro nago ahal dudan guztia ematen dudalako eta ahal dudan guztia sufritzen dudalako enbor gainean. Ona ala txarra naizen jendeak erabaki beharko du. Egingadako errekorrak hor daude.

Gehiago sufritzen dute zure ingurukoek?

Guztiok batera sufritzen edo gozatzen dugu, gauzak ondo edo gaizki ateratzen diren neurrian.

Zertan hobetu da zure teknika azken urteotan?

Teknika? Nik beti nerbioen arazoa izan dut, izugarri gaizki pasatzen nuen. Oso urduria naiz. Zertxobait asentatu egin naiz, eta nahiz eta urduri egon, mendean hartzen dut neure burua.

Hain bihurria zinen txikitan ala geldi egon ezin zuen horietakoa?

Ez dakit hiperaktiboa nintzen. Trasto samarra nintzen.

Horregatik deitzen zizuten Bihurri?

Ez. Ez zitzaidan eskolara joatea asko gustatzen. Beste asko eskolara ikastera joateko desiatzen egoten ziren moduan, noiz bukatuko zain egoten nintzen. Orain "Zuzen" deitu beharko lidakete.

Noiz hasi zinen aizkoran?

25 urterekin. Soldaduskan nengoela egin nuen lehen erakustaldia eta gero serio samar, 27 urterekin. Orduan hasi nintzen, esaten den moduan, aizkora zorrozten.

Non egin zenuen soldadutza?

Madriren.

“Aizkolari ona ala txarra naizen jendeak erabaki beharko du. Egindako errekorrak hor daude”

Eibar eta Real Madriren aurkako partida aprobeixatuz Santiago Bernabeun aizkorarekin jardun zenuen.

Bai, akordatzen naiz ordurako lau metro eta 20 zentimetroko enborra moztuta nuela eta animatu egin nintzen hara joatea. Niretzat erakustaldi arrunta izan zen, baina oihartzun handia izan zuen.

Ez zenuen futbol zelai barruan egin, zure webgunean (www.bihurri.com) hori esaten bada ere...

“Puerta numero 1”n egon nintzen. Castellaren ondoan.

Aizkoraren munduan txikia izatea ez da oztopo izan zuretzat?

Aizkolari tipo askotakoak daude. Zein den hobe ez dakit. Bakoitzak bere ezaugarri eta baldintzetara egokitu behar du. Ni ez naiz kolpe handia duen aizkolaria. Erritmo pixka bat sartzen dut.

Zergatik egin zenuen errekor saiakera Berriren?

Bertako Udalak agertu zuen interes gehien, eta babesleak ere azaldu ziren. Niri berdinez ziztzaian, azkenean dirua galtzeko izaten da.

Ez zara aberats egin errekorrekin, beraz?

Ez, ez. Sinistu ala ez sinistu gauzak horrela dira.

Aizkolaritzari ikuskizun gehiago falta zaio?

Telebistak etortzen dira garrantzia ematen diotelako errekor saiakerei. Kamera asko agertu ziren. Garrantzia hori eman bazioten, izango duelako izango da. Ni kirolari arrunta naiz, nahi duenak ikusi dezala.

“Nire munduko errekorrak haustea erraza balitz, norbait saiatuko zen”

Martxoaren 1ean beti bezala gosaldu zuen: esnea zerealekin eta laranja zukua. Egun horretan lortu zuen bere bigarren munduko errekorra. Eskuineko besoarekin aizkora hartu eta 2,52 metroko perimetroa zuen enborra 22 minutu eta 22 segundutan erdibitu zuen. 878 kolpe behar izan zituen Bihurri Berrizen bildutako zaletuak aho zabalik lagatzeko. “Jendeak esaten zuen ez nuela lortuko, ezinezkoa zela”, gogoratzen du.

“Aizkoran beti bezala egin nuen, di-da, gelditu gabe. Ezkerreko besoarekin ezin nuen ezertxo ere egin. De-

bekatua zegoen ezkerrekoarekin aizkora ukitzea ere”, gaineratu du. Egindako saiakera arriskutsua izan zen, esku bakarrarekin aritzean tendinitisa izan zezakeelako. “Entrenamenduetan ere kontuz ibili ginen, bukatu bezain pronto izotza jartzen nuen juntean eta bizkarrean”, dio.

Bigarren munduko errekorra lortu ondoren, hirugarrena gertuago egon daiteke. “Ikusiko dugu. Esku bakarrekin egindako errekorra haustea erraza balitz, norbait saiatuko litzateke. Momentuz, inor ere ez da ausartu tentadiren bat egiten”, adierazi du.

HODEI EZPELETA

Zortzi urte besterik ez ditu bere semeak. “Gustatzen zaio aizkoraren mundua, baina gazteegia da oraindik. Dakidan apurra erakusten diot: posturak, kortea... Ilusioa egiten dio. Nirekin ibiltzen da erakustaldietan”, adierazi du.

BIZKAIA

Zaldibarren hasi zen Ernesto Ezpeleta Bihurri eibartarra aizkoran. Bizkaiko Federazioko kide da. Bikitoka Bizkaiko txapelkun izan da eta txapelkunorde buruz-burukotan. Perimetro handiko enborrak moztzen trebea da.

Masa Coral del Ensanche taldeak "Katuska" zarzuela eskainiko du

Bilbotarrak apirilaren 4an itzuliko dira Herriko Antzokira

Bilboko Masa Coral del Ensanche taldea beriz itzuliko da Herriko Antzokiko eskenatokira, beste zarzuela bat eskaintzeko. Orain dela hilabete batzuk *La taberna del puerto* lanarekin Elgoibarren izandako arrakastaren ostean, apirilaren 4an *Katuska* eskainiko dute. Dagoeneko sarrerak Kultur Etxean jarri dituzte salgai.

Bi ekitaldi dauzka *Katuska* zarzuelak. Emilio Gonzalez del Castillo eta Manuel Martialonsok idatzitakoa da eta Pablo Sorozabalen musika darama.

Zarzuela horretan iraultza boltxei-kearen inguruan gertatutakoak kontatzen dira. Iraultza hark tsarren inperioa bertan behera laga zuen eta hainbat errusiarrek beste herrialde batzuetara erbesteratu beharra izan zuten, haien artean, *Katuskak*. Garai berriak hasiko ziren ordura arte ezer izan ez zutenentzat, langile eta nekazariarentzat batez ere.

Ukrainako herri bateko ostatuan, 1918an gertatutakoa kontatzen du *Katuskak*. Sasoi horretan gerra zibila hedatu zen herrialde hartara.



Hamalau lagun kantuan

Noble, nekazari, soldadu eta erbesteratuak antzetzeko, hamalau lagun izango dira Herriko Antzokiko eskenatoki gainean kantuan. Maisu kontzertatzailea Mario Letena izango da, eta Luis A. Gamarra abesbatzaren zuzendariak jardungo du musika zuzentzen.

Masa Coral del Ensanche taldeak 1903an ekin zion zarzuelak prestatzeari, Bilboko baserri batean. Orduetik gaur egunera arte dozenaka lagunek jardun dute taldearekin abesten.

Mikel Urdangarin ikusteko sarrerak salgai daude

Udaleko Euskara Batzordeak Apirilaren 18an Mikel Urdangarinen kantaldia ikusteko sarrerak salgai jarri ditu Kultur Etxean. Goizez Euskara Sailean eskura daitezke, eta arratsaldez Gazte Informazio Bulegoan. Sarrerek zazpina euro balio dute. Zornotzarrak 22:15etatik aurrera eskainiko ditu *Anek idatzi dit zutaz* azken diskako kantak. Lan horrek Urdangarinen beraren letrak ez ezik, Maia, Iturriaga, Aurrekoetxea, eta Elortzarenak ere badauzka.

Urdangarinen ondoan honako hauek izango dira kontzertuan: Rafa Rueda (gitarra elektrikoa), Bingen Mendizabal (biolina), Nika Bitchiashvili (biolina), Saihela (bateria) eta Koldo Uriarte (teklatura).



murrplastik

- KABLEENTZAT KATEAK
- IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
- KABLEENTZAT PLAKAK
- TUBOAK ETA ERRAKOREAK

Judith
EDERGINTZA

Errasarrio Kalea, 19 - Tel.: 943 74 29 50 / 667742118

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xizilon, 2 - 3. sotoa 943 74 38 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Bukatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

Euskal mitologiarekin bueltatuko da Kiribilka programa apirilaren 4an

Urrira arte izango da martxan, Elgoibarko Izarrak antolatuta

Euskal mitologia ardatz harturik, apirilaren 4an berriz bueltatuko da Kiribilka egitasmoa, eta urrira arte hainbat saio eta ikuskizun izango dira. Elgoibarko Izarra elkarteak bitik sei urtera arteko umeentzako eta haien gurasoentzako antolatu du, familietan euskararen presentzia modu ludiko, dinamiko eta erakargarrian bultzatzeko.

Aurten Kiribilka mitologiaren gaia erabiliko du. Hainbat pertsonaia mitologikok bisita egingo diote Kiribil barraskiloari barixakuero. Eurekin batera, jolas eta dantza ugari egiteko aukera izango dute Plaza Handira hurbilduko diren umeek. Saio horietan haur eta gurasoek euskaraz ondo pasatzeko aukera izango dute.

Horrez gain, kultur ikuskizunak ere egingo dituzte, bi udaberrian eta beste bat udazkenean. Udazkenekoak aurrerago zehaztuko dituzte. Informazio gehiago 943 74 16 26 telefono zenbakian edo nerea@elgoibarkoizarra.com



SAIO ETA IKUSKIZUNEN EGUTEGIA

APIRILA: 4 - 11 - 18 - 25

MAIATZA: 9 - 16 - 23 (ikuskizuna) - 30

EKAINA: 6 - 13 (ikuskizuna)

IRAILA: 12 - 19 - 26

URRIA: 3

Saioak, 17:30etan Plaza Handian. Eguraldi txarra izaten bada, hurrengo barixakura atzeratuko da.

Kuadrillategiko gazteek graffitia margotu dute Mintxetako horma batean



Graffiti ikastaroa egin zuten martxoaren 15ean Kuadrillategi programako gazteek. Udalak lagata, Mintxetako horma batean Kuadrillategiko logotipoa margotu zuten. Ermutik etorritako bi graffitigilek irakatsi zieten marrazkia egiten. Ondo pasatzeaz gain, marrazki bikaina egitea lortu zuten.

Mexikoko filmak gerturatuko ditu Ongarri zine-klubak apirilaren

Ongarri zine-klubak Mexikon azken boladan egiten duten zineari erreposoa egingo dio apirilaren, hango lau filme eskainiko ditu-eta. Apirilaren 3an, *En el hoyo* eskainiko du (Juan Carlos Rulfo); 10ean, *Luz Silenciosa* (Carlos Reygadas); 17an, *El violín* (Francisco Vargas); eta 24an *Japon* (Carlos Reygadas). Emanaldi guztiak eguenetan izango dira eta 21:30etan hasiko dira.

Maria Teresa Unzueta margolariaren koadroak Kultur Etxean ikusgai

Apirilaren 4tik 20ra bitartean Maria Teresa Unzueta margoak ikusi ahal izango dira Kultur Etxeko erakusketa gelan. Asteleheneetik zapatara 19:00etatik 21:00etara egongo da zabalik. Domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

Interneten aritzeko ikastaroa doan eskainiko du KZguneak

KZguneak interneten jarduteko ikastaroa eskainiko du martxoaren 31tik aurrera (astelehena). Ikastaroa doan izango da eta hamasei urtetik gorako edozeinek parte hartu ahal izango du. Apirilaren 11ra arte iraungo du, honako ordutegiarekin: 9:00-11:00etara edo bestela 16:00-18:00. Izena emateko bertara jo (Merkatu Plaza, 2) edo detu 943 74 88 28 telefono zenbakira.

ATXUTXIAMAİKA AISIALDI TALDEAK HEZITZAİLEAK BEHAR DITU UDAN LAN EGİTEKO

Interesatuok kurrikulumak bidali, apirilaren 18a baino lehen, e-posta honetara:

atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com

Tel.: 943 74 16 26 (Ainara edo lone)



Gure berbak

Aditza (10): NOR-NORI-NORK oraina

Gaurkuan NOR-NORI-NORK edo DIO motako aditzak izango dittugu hizpide. Beti bezela, indikatiboko oraiñaldikuak izango dittugu aittatzen lehlenak:

- Neutruak: *Liburu bat erosi diot lagunari; liburu bat erosi dio harek lagunari; liburu bat erosi diogu guk; liburu bat erosi diozu; liburu bat erosi diozue; liburu bat erosi diue gurasuak semiari.*

- Hikakuak (giz.): *Liburu bat erosi jauat lagunari; hik liburu bat erosi diok lagunari; liburu bat erosi jaok harek; liburu bat erosi jauagu guk; liburu bat erosi jauek gurasuak semiari.*

- Hikakuak (emak.): *Liburu bat erosi jaunat lagunari; hik liburu bat erosi dion lagunari; liburu bat erosi jaon harek; liburu bat erosi jaunagu guk; liburu bat erosi jaune gurasuak semiari.*

Dialektologian funtsezko ezaugarri bat dana ere aittatu nahi neuke, DIO aditz hauek dirala eta. Jakiña da Elgoibartik mendebaldera, Bizkai aldera *EUTSI errua deben aditzak erabiltzen dirala, hau da, **dotsat**, **detsat**, **dutsat** eta era honetakuak, gure **diot**-en orde. Ba, **diot** erako aditzak, erdialdeko edo gipuzkeraren ezaugarritzat hartzen diranak Elgoibarren has ten dira erabiltzen; Elgoibartik ekialdera (Mendaro, Deba...).

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1968

Aste honetako erretratu zaharra Luis Gonzalezek laga digu. Rayo de San Pedro futbol taldeak Plaza Txikiko futbito txapelketa irabazi zuen urte hartan. Herriko taldeek hartzen zuten parte txapelketan eta sekulako arrakasta izaten zuen. Talde asko aritzen ziren jokatzeko eta herritar mordoak gerturatzen zen partiduak ikustera.

Beheko erretratu hau sari banaketa ekitaldian aterata dago eta ikusten den moduan, ume mordoak bildu ziren. Pozik eta irrifartsu ikusten ditugu Rayo de San Pedro taldeko jokalariek.

Saria banatzen Jose Luis Eizagirre (†) (Eizagirre okindegiko nagusia) eta saria jasotzen Eduardo Feijoo (Rayo de San Pedro taldeko jokalaria).



ESKERTZA



2008ko martxoaren 23an hil zen *Lourdes Aguirre Goiburu* andrearen sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Haur hezkuntza



Lehen hezkuntza



Bigarren hezkuntza



Elgoibarko Herri Eskola

Kalamua, 8

Tel.: 943 74 08 79

E-posta: 012777aa@hezkuntza.net


Elgoibarko Herri Eskolako Ate Ireki eguna: Apirilak 5

MATRIKULAZIOA

2008 - 2009

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

MARTXOAREN 31tik APIRILAREN 11ra



Elgoibarko Institutua

San Roke, 11

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

Berria!!! Naturopata, Iridiologia eta Homeopata.

("Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak).

San Bartolome, 25

Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00

16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9

Tel: 943 74 85 93 (Idoia)

685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan:

20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus optiko-optometriska

San Bartolome, 10

Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria) San Frantzisko, 21

Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar)

Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behe (Ermua)

Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com

webgunea: www.irale.com

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 - Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaila linfatikoa, osteopatia, kirol masajea

(bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.)

San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)

Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera 8:00 - 14:00

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745

(Goiz eta arratsaldez)

Jausoro, 6 behe

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 74 17 95

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30



Otsailean...

JAIOTAKOAK

Jose Aaron Chavez
Pacilla Otsailak 9
 J. Herman eta M. Lorena



Kalet Rua Garcia
 Otsailak 22
 Ane Belen eta Mikel



Nora Garcia Urkiri
 Otsailak 8
 Ernesto eta Ihintz



Nora Puertas Santos
 Otsailak 11
 Jon eta Idoia



Iraia Mir Rozas
 Otsailak 18
 Gorka eta Sheila



Mikel Bergua Oteiza
 Otsailak 24
 Aitor eta Lorea



Paule Soto
 Urtarrilak 19
 Daniel eta Maria



Ibai Simon Velado
 Otsailak 25
 Oscar eta Ainhoa

Ane Arosa Sasiain
 Otsailak 7
 Zigor eta Maria

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira
943 74 41 12 telefonora edo bidalie-postaz
barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

HILDAKOAK

Jose Maria Barrenetxea • 80 urte • Otsailak 1
Maria Antonia San Sebastian • 71 urte • Otsailak 1
Gregoria Gorostidi • 94 urte • Otsailak 2
Patrocinio Hernando • 77 urte • Otsailak 2
Gabriel Ruiz • 76 urte • Otsailak 2
Ignacio Barrenetxea • 87 urte • Otsailak 6
Ramona Sololuze • 75 urte • Otsailak 6
Vicente Saiz • 65 urte • Otsailak 6
Petra Igartua • 81 urte • Otsailak 18
Felisa Badiola • 91 urte • Otsailak 18
Isabel Arrieta • 92 urte • Otsailak 19
Ramona Corbillan • 91 urte • Otsailak 21
Jesusa Bikuña • 87 urte • Urtarrilak 22
Angeles Okina • 93 urte • Otsailak 25

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA

KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK

NORBANAKOEI
 eta
KONPAINIEI
 zuzenduriko
 zerbitzuak

Erietxe
 zentruetan
 zerbitzuak

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
 Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
 (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
 (Sakelekoa) 635 756 295

Morkaikoren udaberriko mendi emanaldiak apirilaren 2an hasiko dira

Bost ikus-entzunezko aurkeztuko dira maiatzaren 7ra arte



Bigarren urtez jarraian, Udaberriko mendi emanaldiak izeneko zikloa antolatu du Morkaiko Mendizale Elkarteak Kutzaren laguntzarekin. Guztira bost ikus-entzunezko emango dituzte apirilaren 2tik maiatzaren 7ra bitartean, eguazteno, gaueko 21:30etik aurrera. Horietako bi Alberto Agirreazaldegi ("Rajalta Rajalle Hiito: Iraupen Eskiko Proba Laponian") eta Josu Merino ("Cerro Torre: Ferrari bidea") elgoibartarrenak izango dira.

Alex Retana eta Alberto Iñurrategi

Juan Vallejok "Karakorumeko mendiak" ikus-entzunezkoarekin emango dio hasiera zikloari. Anex Retana mendizale debarrak Austriar Alpeek mendiko eskia egiteko eskaintzen dituzte aukerak erakutsiko ditu apirilaren 23an. Alberto Iñurrategi, berriz, "Begiz begi" lana aurkeztuko du maiatzaren 7an. Proposamen ausarta da, inguru exotikoetara bidaiatzen duen mendizalearen izaerari buruzko azterketa sakon bat.

Hiru txirlo txapelketa

Gipuzkoako hiru txirlo txapelketa martxoaren 29an hasiko da Txurrukan (Soraluze). Apirilaren 5ean San Pedron jokatu da, eta maiatzaren 17 eta 24an ere herrira etorriko da, San Roke eta San Migelera, hurrenez hurren. Urtero bezala udaberriaren hasierarekin bat egingo du, eta aurten maiatzaren 31n bukatuko da Elgetan. Azken proban izan ezik (eguerdian), arratsaldeko 17:00etan hasiko da lehiaketa. Gainontzeko hitzorduak hauek izango dira: San Soraluzeko San Andresen (apirilaren 12an); Lasturren apirilaren 19an; Eibarko Asola-Berrin apirilaren 26an eta Floreagan maiatzaren 10ean.

Zozketa

Elgoibarko Udala Kiroi Patronatuak zera jakinarazi nahi du: aurtengo bigarren hiruhilekorako Olaizaga kiroldagiko squasha edo frontoi txikia erreserbatu nahi dutenen artean, apirilaren 3an, arratsaldeko 19:00etan, egingo da ordutegien zozketa kiroldegian bertan. Patronatuko abonatuak squash eta frontoi txikiaren erabilera doan izango dute.

Jose Angel Zabala

MAHASTI

Urdaitegi eta ardandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72

CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zaluen kolokazioa
Lokazioa: egur, aluminio, P.V.C.
Pintara onakortza

San Roke, 7 behean
Pol. Glaso - Glasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 578

GRUPO
TECHNIMAT

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

Iaz baino 16.000 euro gehiago jasoko dute herriko hamazortzi kirol klubek

Kirol ekitaldietarako diru-laguntzak ere %56 igo dira



Udalak kirol klubei emandako diru-laguntzak %84,88 igo dira, joan den urteko datuekin alderatuta. Aurten 30.000 euro (16.227 euro iaz) bideratuko ditu Udalak herriko 18 kirol klub-entzako diruz laguntzeko. Elgoibar-ko Futbol Taldea eta eskubaloiko Sanlo taldeek jaso dute babes gehien, 6.467,77 eta 6.465,19 euro, hurrenez hurren. Gainontzeko kirol klub gehienei 1.000 eta 2.400 euro bitartean emango diete, duten lizentzia kopurua eta jardue-

ren arabera. Morkaiko eta Urbizi taldeak salbuespenak dira. Kopuru zehatz bat jasotzen dute urtero.

Mugerza krosa

Udalak diruz lagunduko duen *Nahaste Borraste* probaz gain, Ikastolak antolatzen duen haur krosa, jaietako eskubaloi partidua edo San Antonetako pilota txapelketa diruz lagunduko ditu. Mugerza krosara 25.000 euro zuzenduko dira, iaz baino 10.000 euro gehiago.

Kuadrillategiko gazteek eskalada egin zuten Donostian

Kuadrillategiko gazteak pasa den martxoaren 15ean eskalada ikastaroa egin zuten Donostiako Pio Baroja kiroldegian. Donostian, Fortuna Kirol Elkarteak kudeatzen du rokodromoa eta elkarteak berak ikastaro ugari antolatzen ditu bertan. Elgoibarko gazteek bi ordu eta erdi jardun zuten eskaladaren lehen urratsak eta oinarrizko teknika eza-gutzen.



EMAITZAK

FUTBOLA

Elgoibar 1 – Iintxa 0 (erregionala)

Elgoibar 5 – Sanse 1 (kadeteak)

Elgoibar 5 – Ostadar 2 (infantil txiki)

Elgoibar 4 – Tolosa 1 (neskak)

Zamudio 1 – Haundi 1

Euskalduna 2 – Elgoibar 0 (jubenilak)

Aloña mendi 1 – Elgoibar 1 (infantil)

Eibar 4 – Elgoibar 3 (alebinak)

ARETO FUTBOLA

Alegria 4 – Kenci 7 (euskal liga)

Goierrri 2 – Elgoibar 17 (jubenilak)

AGENDA

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Barixakua, 28

19:15 Cometel – Pulpo (jubenil neskek)

Barixakua, 29

10:00 Elgoibar – Ermua (infantil neskek)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 30

11:00 Basarte – Prexkuk

LANA

ESKAERA

- Emakumea, lanerako prest: nagusiak zein umeak zaindu, garbiketa lanak... **☎ 696 284 351**
- Partikularra ematen da Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei. **☎ 943 53 10 54**
- Mutil arduratsua, zerbitzari lanerako prest. **☎ 626 590 632**
- Emakumea, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak ordu batzuetan zaintzeko prest. Josteko lanak ere egi-ten ditut. **☎ 943 74 22 01 / 652 715 908**
- Neska, sukaldari, zerbitzari... lanerako prest **☎ 649 694 790**
- Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak edo umeak zaindu... Goizez **☎ 699 690 190**
- Neska gaztea, edozein lan egiteko prest. **☎ 677 300 105**
- Frantses partikularrak ematen dira. **☎ 664 126 273**
- Bi irakasle, partikularrak emateko prest, LH, DBH, Batxilergoa eta Heziketa zikloak. **☎ 653 717 972**
- Mutil gaztea, banatzaile lanetarako prest. Badaki euskaraz. **☎ 620 049 420**
- Neska gaztea, 12:00etatik 18:00etara lan egiteko prest, orduka. **☎ 659 866 116**
- Neska, nagusiak zaintzeko prest, bakarrik arratsalde edo gauz, orduka ere bai. **☎ 671 476 869**
- Neska, tabernan lan egiteko, garbiketa lanetarako edo nagusiak zaintzeko prest. **☎ 686 234 612**
- Neska, sukaldean laguntzaile edo nagusiak zaintzeko prest. **☎ 699 813 826**
- Bi neska gazte tabernan zerbitzatzeko, nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. **☎ 696 665 304**
- Gizon gaztea edozein lanetarako prest: peoi, zaintzaile, sukaldari laguntzaile... Ingelese ere badakit **☎ 697 538 610**
- Mutila, lan egiteko prest. **☎ 680 250 527 / 943 53 15 45**
- Mutila, nagusiak zaintzeko, sukaldean laguntzaile aritzeko edo garbitzaile izateko prest. **☎ 608 400 998**

ESKAITZA

- Zerbitzaria behar da. **☎ 943 12 12 62**
- Hezkuntza Berezia egin duen edo egiten ari den laguna behar da umea zaintzeko uztailera goizetan. **☎ 615 787 118**
- Mutila behar da igeltsaritza lanerako. **☎ 605 705 204**
- Neska arduratsua behar da umeak zaintzeko. **☎ 943 74 29 66**
- Haur Hezkuntzako 1. ziklorako (0-3 urte) teknikarien lan poltsa osatzeko curriculumak behar dira. **elgoibar@ilkastola.net**
- Artikuluak katalogoz saltzeko prest dauden lagunak behar dira. Diru-sarrerara ona. Esperientzia ez da beharrezkoa. **☎ 607 824 892**
- Margolari autonomoa behar da. Gutxienez bi urteko esperientzia. **☎ 690 005 800**

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

- Urasandin pisua salgai. Hiru logela bi-koitzak, bainugela, sukalde eta egongela. Horma-armairua, balkoia eta galeria (estalitako balkoia) ere badu. Oso eguzkitsua **☎ 626 371 369**
- Urasandin pisua salgai. Hiru logela, egongela, jangela, komuna, sukalde eta trasteroa. 89 m². **☎ 607 743 068**
- Etxea salgai Erretxindin. Lau logela, sukalde berritua, eguzkitsua, ganbara, balkoi handia. Altzariekin saltzen da. **☎ 628 115 677**
- Pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukalde, komuna, jantokia, kalefakzioa, oso argitsua, bizitzera sartzeko modukoa. Prezio interesgarria **☎ 615 769 650**

GARAJEAK

- Garaje itxia alokairuan Jausoron. 75 euro hilabeteko. **☎ 650 130 213**

MOTORRA

- Renault Espace salgai. 7 eserleku. 2.200 diesela. **☎ 695 730 442**
- Opel Tigra salgai. 80.000 km. Egoera onean. **☎ 646 742 465**
- Ford Focus 2.0 16v. 130 zaldi. Llantak, Pionner irratia, beltz metalizatua, egoera oso onean. 5.500 euro negoziagarriak. Transferentzia nire kontu. **☎ 660 056 240**
- Citroen saxo diesela salgai. **☎ 639 572 532**
- Ford Focus Berlina salgai, TDI, 2001. urtekoa. **☎ 630 151 231**

BESTELAKOAK

- Pisu txikia behar da Elgoibarren alokatzeko. **☎ 699 637 269**
- Erdigunean dagoen taberna alokatzeko da jabearen erretiroa dela-eta. Terraza du. **☎ 943 74 28 97**
- Alemaniako 19 urteko neska batek bi hilabeteko egonaldirako familia behar du *au pair* egoteko. **☎ 635 706 537**
- Eratzuna galdu da, balio sentimental handikoa, Jai Alai tabernan otsailaren 23an. Aurkitu duenak udaltzainei laga diezaiela. **☎ 943 74 44 83**
- Balkoi batetik erori da kamiseta polar gorri-naranja. **☎ 943 74 18 34**
- Pisu txiki baten bila gabiltza alokairuan hartzeko Elgoibarren. **☎ 699 637 269**

ABISUAK

- Urre zurizko ezkon eratzuna aurkitu dut Pedro Muguruzan. **☎ 637 532 824**
- Antiojoak galdu dira martxoaren 4ean geltoki bidean. Eskertuko da. **☎ 943 74 13 26**
- Altzariak, etxetresna elektrikoak, oherako erropa, kortinak eta alfonbra handi eta txikiak behar dira. **☎ 676 444 171**
- Mutil batek PSPa galdu du Madalako Eroskitik Gaztelekurako bidean. Eskertuko da. **☎ 656 766 563 / 688 663 032**



BEKAK

DOKTOREGOIA

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa. Ikertzaileak presartzeko laguntzak, doktorego-tesi bat egin nahi duten Unibertsitateko goi-mailako tituludunentzat.

Epea: apirilak 1.

DIRU-LAGUNTZAK

Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politikako Departamentua. Haur, Nerabe eta Gazteen arloan proiektuak egiteko 2007ko diru-laguntzak abian dira. Informazio gehiago: 900 11 01 11 (arratsalde, aholkularitza).

KOOPERAZIOA

Eusko Jaurlaritza. UNIFEMek (Fondo de Desarrollo de Naciones Unidas para la Mujer) Hego Amerikan dituen hainbat bulegotan kooperante izateko lau beka. Epea: martxoak 31.

LANA

TEKNIKOAK

Urola Kostako Udal Elkarteak. Enpresen zerbitzuetarako goi mailako teknikarien lan-poltsa osatzeko hautapen probetarako deialdia egiten du Urola Kostako Udal Elkarteak. Epea: martxoak 31.

BEGIRALEAK

Atxutxiamaiak Aisialdi Taldeak begiraleak behar ditu udan lan egiteko. Epea: Apirilak 18.

LEHIAKETAK

GOMENDIO LEHIAKETA

Gomendatzen dizut, merezi du lehiaketa. Gipuzkoako hainbat Gazte Informazio Bulegok parte hartzen dute. Informazio gehiago www.aizue.com blogean. Epea: irailak 30.

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: gib@elgoibar.org
☎ 943 74 14 61
Martxoak 17tik 28ra itxita egongo da.
Martxoak 31tik aurrera, ordutegi berria.
Astelohen, asteazken eta ostiral goizetan:
11:00etatik 13:00etara
Astelohenetik ostiral arratsaldetan:
16:00etatik 19:00etara.



• Zorionak, **Julen**, etzi 4 urte egingo dituzulako. Muxu bat etxekoan eta bereziki Naiaren partez.



• Sei bider bi edo hamarri gehitu bi, bat eta bi, aupa **Leire**, egin dituzu hamabi! Bihotzez ondo pasatu!



• Zorionak, **Ibai**, urte bat egin duzulako, zure gurasoen partez.



• Zorionak, **Jon**, urtetxo bat jadanik. Muxu handi bat familiaren eta lagun-txoen partez.



• Zorionak, **Leire**, astear-tean bigarren kandela jarriko diogu pastelari. Bi patxo etxekoan partez.



• Zorionak, **Nahia**, zure lehenengo urtebetetzean, familiaren eta bereziki Ma-lenen partez.



• Zorionak, **Jon**, igandean 9 urte egingo dituzulako. Familia osoaren partez muxu bat.



• Udaberriko loretxoari zorionak, 10 urte egin dituzulako. Muxu bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Maren**, hilaren 19an 5 urte egin zenituelako. Bea eta Joakinen partez.



• Zorionak, **Unax**, hilaren 26an 3 urte egin zenituelako. Familia guztiaren eta bereziki Dunaren partez.




• Zorionak, **Oier**, gaur 11 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki Jule-nen partez.



• Zorionak, **Julen**, bihar 5 urte egingo dituzulako. Maite zaituzten pertsonen partez.



• Zorionak, **Enara**, atzo 5 urte egin zenituelako. Familia eta lagunaren partez.




• Zorionak, **Ibai**, bihar 2 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Ane**, hilaren 12an urte bete zenituelako. Familia guztiaren partetik



• Zorionak, **Gorka**, igandean 2 urtetxo beteko dituzulako. Pepi eta Ramon-en partez.



• Zorionak **Pedro eta Ariana**, etxeko txikia eta katu txikia, zuen gurasoen eta bereziki zuen anaia Alejandroren partez.



• Zorionak **Jose** eta **Mara**, hilaren 1 eta 2an zuen urtebetetze eguna izango delako. Muxu bat amatxoren partez.

ELGOIBARTARRAK GAZTE TOPAGUNEAN



Lezon izan da aurtengo Gazte Topagunea martxoaren 21etik 24ra bitartean. Milaka lagun bildu dira bertan, eta horien artean, koadrila handi bat: 30 elgoibartar baino gehiago izan dira aurtengo Gazte Topagunean. "Etorkizuna independentzia" lemapean, hainbat ekitaldi izan dira: kontzertuak, hitzaldiak, bideo emanaldiak... Eguraldiak ezer ere lagundu ez duen arren, giro bikainean eta umorez pasatu dituzte egunak.

OKINDEGIA

30 domeka **EZAGIRRE**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 28 Etxeberria (*Errosario*)
- 29 Etxeberria (*Santa Ana*)
(*Goizez Ibañez)
- 30** Ibañez
- 31 Bidasolo
- 1 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 2 Fernandez
- 3 Yudego
- 4 Zabaleta

Escala

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik www.elgoiBARREN.neten

29 zapatua

12:30 Hitzaldia

“Parkinson gaixotasuna eta Deparkel ezagutuz” hitzaldia izango da Kultur Etxean.
Antolatzaileak: Deparkel eta Nagusilan.
Hizlaria: Javier Ruiz neurologoa

30 domeka

9:00 Espeleologia Irteera

Arrikruz kobara bisita gidatua, eta Urbian egun pasa.
Irteera Txankakuako autobus geltokitik.
Antolatzailea: Eslgoibarko Espeleologia Taldea.

31 astelehena

9:00 Internet ikastaroa

IT KZgune ikastaroa hasiko da. Doan izango da, goizez edo arratsalde. Informazio gehiago KZgunean: 943 74 88 28.

1 martitzena

19:00 Hitzaldia

Bularreko minbizia garaiz antzemateko programa azaduko dute.
Antolatzailea: Katxalin Elkartea.

19:00 Antzerki tailerra

Taupada Antzerki taldeak eskainitako tailerra 18 urtetik gorakoentzat.
Informazioa: 943 74 36 55.

2 eguaztena

21:30 Mendi emanaldia

Juan Vallejok “Montañas del Karakorum” hitzaldia eskainiko du.
Musika Eskolako Auditorioan.

3 eguena

19:00 Antzerki tailerra

Taupada Antzerki taldeak eskainitako tailerra 18 urtetik gorakoentzat.
Informazioa: 943 74 36 55

ESKERTZA



Jesus Iriondo Elorza
2008ko martxoaren 19an hil zen

*Nahiz eta gure artetik joan,
beti izango zaitugu gure bihotzean.
Gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizi garan artean
ez zaitugu ahaztuko.*

*Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



4 *barixakua*

17:30 Kiribilka

Kiribil eta bere lagunak Plaza Handian izango dira.

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

19:00 Erakusketa

Maria Teresa Unzueta ren margoak jarriko dira ikusgai Kultur Etxean, hilaren 20ra arte.

22:15 Zarzuela

Masa Coral del Ensanche taldeak "Katiuska" izeneko zarzuela emanaldia eskainiko du Herriko Antzokian.

Gure gomendioa

Espeleologia irteera

Marxoak 30, domeka

Elgoibarko Espeleologia Taldeak antolatuta, Arrikruz kobara egingo dute irteera datorren domekan, marxoak 30. Goizeko 9:00etan izango da irteera Txankakuako autobus geltokian. Kobako bisita gidatua egin ondoren, Urbiako zelaietan pasatuko dute eguna. Irteeraren prezioa 12 eurokoa da. Interesatek ondorengo telefonoetan eskuratu dezakete informazio gehiago: 630 128 603 (Jaime) edo 646 369 419 (Paolo).



«Ahora o nunca»

28, barixakua: 22:15

29, zapatua: 19:00-22:15

30, domeka: 19:00-22:15

31, astelehena: 21:30

«Nocturna, abentura magiko bat»

30, domeka: 16:30

«En el hoyo» (Zine-kluba)

3, eguena: 21:30



ESKERTZA

*Nahiz saminez daukagun
beteta barrena
itxaropentsu gaude
familia dena
zai dezulako gehien
maite zenuena
Maria Luisa, Luis Mari
berriz elkarrena
gozatu dezazuten
betiko atsedena.*

2008ko martxoaren 17an hil zen, **Maria Luisa Garate Peña** andrearen sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





klik - klak

jon agote

Animatu zara azkenean?

Zozketa egin dugu lau lagunen artean eta niri tokatu zait elkarriketa egitea.

Zigortuta zaude?

Bai. Berandu heldu naiz ingeleseko eskolara. Lehenengo aldia da zigorra jartzen didatena.

Zergatik heldu zara berandu?

Lokaletik berandu irten garelako.

Zer egiten duzue han?

Telebista ikusi, hitz egin...

Zapatu gauetan irteten zara?

Noizean behin. 16 urteko gainontzeko gazteak bezala.

Elgoibarko zapatu gauak gustatzen zaizkizu?

Ez zait gustatzen dagoen giroa.

Beste leku batzuetara irten izan zara?

Bai, Azpeitian, Eibarren, Donostian...

Zeintzuk dira zure kezkak?

Ikasketak, lagun artea...

Aste Santuetako oporretan nonbaitera joan zara?

Ez, baina eguraldi ona egiten duen nonbaitera joango nintzateke.

Kirolrik egiten duzu?

Bai, eskubaloian jokutzen dut.

Urte batzuk barru...

Beste herriren batean ikusten dut nire burua, lanean...

Zer ikasi nahi zenuke?

Ez dakit, baina kanpora joan nahi nuke.

Noiz arte izango zara gazte?

30 urtera arte edo.

Idoloren bat?

Toti.

Politikaren berriak jarraitzen dituzu?

Ez, ez zait politika interesatzen.

Segapoto eta internetik gabe, badago bizitzarik?

Bai, noski, lokalean egotea adibidez, eta han ez dugu internetik.

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartean

Haur eta gaztetxoentzako
proiektuetan lan egiteko

**KOORDINATZAILEA
BEHAR DA**

- ▶ Astean 35 orduko lan-dedikazioa.
- ▶ Lanean berehala hasteko (urtebeteko kontratua).
- ▶ Aisialdian esperientzia eta harremanetarako dohainak izatea eskatzen dugu.

Informazio gehiago: E-posta: nerea@elgoibarkoizarra.com
Tel.: 943 74 16 26 (Nerea)

Curriculumak entregatzeko: nerea@elgoibarkoizarra.com
Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea -Ubitarte 4, behea - 20870 ELGOIBAR
Azken eguna: **Apirilak 18**

ikastolak etorkizuna ereiten



aurre-matrikulazioa

martxoaren 31tik

apirilaren 11ra



943 744441
www.elgoibarikastola.net
elgoibar@ikastola.net



Aurkezpen bilera irekia:
apirilaren 1ean, 19:00
Ikastolan

elgoibar ikastola

“KATIUSKA”

ZARTZUELA

Masa Coral del Ensanche

Aprilak 4, ostirala
22:15ean
Herriko Antzokian



Sarrerak aurrez salgai
Kultur Etxean



Kultura saila



Foru Aldundia



“MUNSTROAK AKATUZ”

Teatro Mutante

Aprilak 27, igandea
16:30ean
Herriko Antzokian



Debabarreneko XXIV. eskolarteko
antzerki erakusketa

Sarrerak salgai leihatilan



Eusko Jaurlaritzaren



SAREA